

TXERRI BAT
DAUKAGU, ZIKINA.
BETE ETA BAINERAN
SARTU DUGU GAUR,
UR EPELETAN.
BAINA TXERRIA BETI
TXERRIKERIETAN,
PIXA ETA KAKA ERE
EGIN DU BERTAN. ¹

¹ OHARRA: pixa eta kaka esatean, sudurra bi behatzekin estali.

KORROK, KORROK, KORROK,
GOIZEAN GOIZETIK,
POZIK DAGOEN
IGELTXOA NAIZ NI,
ZURI KANTATZERA
NATOR ERREKATIK.²

² Txalo Pin Txalo 2 liburua (moldatua).

Oharra: Onomatopeia eta animalia aldatu ditzakegu, adb: "Kua,kua,kua, ahate beltza naiz ni..."

TXAKURRAK AU-AU,
KATUAK MIAU.
OTSOA BADATOR,
MARRAMI_AOOUUU!

TXORIAK KANTA,
UNTXIAK SALTA,
ARRAINAK PLASTA.
AI, ZE ZALAPARTA!

³

³ Hautxoia Bi iburua (moldatua).

TXAKURRAK ZAUNKA,
KATUAK MIAUKA,
BEHIAK MARRUKA,
HAU DA HAU, MARKA!⁴

⁴ Hautxoia Bi liburua (moldatua).

GOIAN DABIL KATUA,
BEHEAN DAGO TXAKURRA;
GOIAN DABIL HAIZEA,
BEHEAN DAGO HOSTOA.⁵

⁵ Haurtxoa Bi liburua (moldatua).
Beste gaia: UDAZKENA

KATAGORRI, GORRI GORRI,
ADARRETAN, GORRI GORRI.
KATAGORRI, GORRI GORRI,
GORA ETA BEHERA,
JOAN ETA ETORRI .⁶

⁶ Lokomotora berria liburua (moldatua).

AIREKO TXIMELETA,
ZEIN POLITA ZAREN!
AIREKO TXIMELETA,
URREZKO ETA BERDEA.⁷

⁷ F. Garcia Lorca, Fantasia 3 liburua (moldatua).

OILOA ETA TXITATXOAK
PASEATZERA IRTEN DIRA.
OILOA ASKO IBILIZ GERO,
TXITAK NEKATUKO DIRA. ⁸

⁸ Fantasia 3 Ilburua (moldatua).
Oharra: talde txikietan antzeztu.

SERAFINA JIRAFAK
LARRUA HORIA DU,
ATZO IRTEN ZITZAIZKION
PUNTUTXO BELTZEKIN.
XABOIZ GARBITUKO DITUT,
ETA HORRELA KENDUKO DITUT.
IZAN NAHI DUT HORIA BAKARRIK.
EGUZKIA BEZALAKOA
IZAN NAHI DUT.⁹

⁹ Fernando Alonso, Fantasia 4 liburua (moldatua).